


GURE IRAKURGELA

GOGOETARAKO BIDEAK ZABALDUZ

2009. urtean kultur alorrean izandako gertaera nagusien erreposoa azken Jakin aldizkariak jorratzen duen gai nagusia, eta horren haritik ohiko hainbat idazleren gogoeta ezin aproposagoak, nork bere ikuspegitik, Jakinek plazaratutakoak. Esaterako, Alberto Barandiaran kazetariak Iruña-Veleia aztarnategiko aurkikuntza eta literatura sari banaketak ditu hizpide; Pantxo Etchegoin EKEko zuzendariak Ipar Euskal Herriko hainbat kultur gertakizun aurkezten ditu; Patxi Gaztelumendi kazetariak euskararen sarea eta komunikazioaren esparruko hainbat ekimen dakarcki orriotara; Xabier Mendiguren Bereziartu Kontseiluko idazkari nagusiak hizkuntz politikaren inguruko aurtengo auzi nagusiak aztertzen ditu edota Xabier Mendiguren Elizegi

Patxi Sarriegi

Aldizkaria:
Jakin. 175. zbkia.
Izenburua:
Euskal kultura 2009.
Argitaratzailea:
Jakin. Azaroa - Abendua. 2009.



idazle eta editoreak politika, literatura eta kultura alorreko hainbat gertakiriri buruz dihardu.
Hurrento ataletan, Laura Mintegi idazleak, besteak beste,


Eusko Jaurlaritzan izandako aldatetako hezkuntza eta kultura politiketan ekar ditzakeen ondo-

rioei buruz egiten du gogoeta; Fito Rodriguez EIE lehendakariak literatur esparruko hainbat gertakiriri buruz dihardu; Allande Sokarros kazetariak Zuberoako kultur gintza du hizpide eta jomuga; Andres Urrutia euskaltzainburuak erakundearen 90. urteurrenaren hari-egindakoak dakarzkigu; Eguzki Urteaga soziologoak Frantziako Gobernuak euskararen ezagupenean sakontzeko erakutsitako ekimen urriaz dihardu; eta azkenik, Iñaki Zabaleta Urkiola irakasleak adierazpen askatasunari eta zentsurari buruz hausnartzen du, gehienbat, EITBren baitan gertatzen ari diren aldaketan haritik.

Guzti hauetaz gain ere, azken orrialdeetako Gaiak sailaren barruan Euskal Herriaren nazio gatazkaren auziari heltzen diote Elena Beloki eta Jean Pie-

rre Massiasek, hain zuzen, gatazka horren konponbidean Europar Batasunak eskaintzen dituen aukerak aztertuz. Edonola, ezinbestean jakinmina pizten duten era askotariko gaiak dira kultur aldizkariaren azken aleak bildutakoak, pentsakera desberdinak biltzen dituenak. Euskal kultura idatziaren dibulgazioan ahalegin berria da, kulturgile askori ahotsa ematen diona. Azken batean, eskainitako ekarpen guztiak egungo euskal kulturaren erreferente dira, egungo errealitate korapilatsuaren ispiluak. Beste behin ere, euskal kultur mundua antza eta emankorraren adierazle, egungo gaietan murgildu nahi duenarentzat aukera aparta da azken Jakin-ek 2009ko euskal kulturari eskaintzen diona, gogotarako bideak zabaltzen dituenak.

ERAKUSLEIHOA



Tentazioari ezin eutsi

Pierrek, 65 urteko gizon aberatsak, Chloé erraina eta bi ilobak etxera gonbidatu ditu. Pierren semeak Chloé abandonatu eta amorrante batekin alde egin du; ama indarge sentitzen da umeen kargu egiteko eta edozein laguntza estimatuko du. Aitagarrebak errainarekin duen harreman bereziari esker, gizonak konfiantza hartuko du eta sekretu handi bat kontatuko dio: bera ere maite-minduta egin zen ezkondata zegoen garaian, baina tentazioari eutsi, abenturari uko egin eta familiarekin segitu zuen. Gavalda paristarra da. 1992an France Inter saria irabazi zuen *La Plus Belle Lettre d'amour* lanarekin.


'Maite nuen'
Anna Gavalda, Alberdania
16,00 euro



Bizitzaren oinarriak hankaz gora

Desagertzen diren gurasoek eta etxea uzten duten seme-alabek abandonaturik, bizitzako une bertsuan gertatzen zaigu maizenik banantze horiei aurre egin beharra: hil egiten dira gurasoak, handitu seme-alabak. Bi belaunaldiren, existentzia zor diegunen eta existentzia eman diegunen, artean tinkaturik gaudela, nor gara gu honezkerok? Zalantzakoak dira erreferentziak, aldatzen dira paperak. Nola bilakatu galera bikoitz hori barne metamorfosi, berrabiatze bat? Gadera guzti hauek erantzuten saiatuko da Lydia Flem egilea, liburu honetan. Izan ere, idazlea izateaz gain, psikoanalista baita.


'Nola banandu nintzen neure alaba eta neure ia-semearengandik'
Lydia Flem, Alberdania
12,50 euro



Antso erregearen garaiak

Eleberri honek Nafarroako erreinuaren garairik liluragarrienetako batera eramaten gaitu. 1004ean Antso III.a Handiaren koroatzea izan zen; bere erreinaldian Hispainiako kristau erresumen izatera iritsi zen. Guztiz karisma bereziko pertsonaia bat izan zen; haren biografiak, hala ere, lurralde-, erlijio- eta maitasun-kontuetan katramila askotan sartuta egon zela erakusten digu. Ez dago zalantzarik bere erresumaren muge barruan ordena jartzen jakin zuen erregea izan zela, eta ez zuela beldurrik izan aukera izan zuen edozein lurralde konkistatzeari ekiteko.

'Antsoren dorreak'
Toti Martínez de Lezea, Erein
11,00 euro



Anaiaren ezusteko itzulera

"Esan? - galdetunuen zakar. Beste aldekoa, horrelako erantzunik esperoan nonbait, erantzungailu bat bezala mintzatu zitzaidan. Olea jaunaz galdetu ondoren, baiezkoa jasoa, alde aurretik prestatua zeukana labor eta lehor plazaratu zuen, inolako inguru-mingururik gabe, eguraldiaz edo liga txapelketaren azken jardunaldiaz hitz egiten den legez. Harri egin utzi ninduen. Orritxo bat eskuratu eta esku dardartiaz zirriboratu nuen tonu berean emandako helbidea. Gero begirada galduta geratu nintzen, telefono eskuan etendura-ren txistuei jaramonik egiteke. Bera berriro! Jon, zorioneko Jon!"

'Barre algarak infernutik'
M. A. Mintegi, Erein
8,00 euro

BERRIENAK

Euskaraz idatzitakoak

- 1. Eguzki golpea**
Horacio Quiroga, Elkar
- 2. Bi marra arrosa**
Jasone Osoro, Txalaparta
- 3. Iratzeen esporak**
Igor Estankona, Susa
- 4. Zureak egin du**
Iñaki Frieria, Susa
- 5. Denbora enaren hegaletan**
Karmele Igartua, Pamiela
- 6. Xahmaran**
Jon Arretxe, Erein
- 7. Heriotzarako jantzita**
Donna Leon, Erein

Gazteleraz idatzitakoak

- 1. Sangre derramada**
Asa Larsson, Seix Barral
- 2. El silencio de las hayas**
Mikel Alvira, Tarttalo
- 3. El Camino de Santiago en bici**
Eloy Angulo, Sua edizioak
- 4. Dime quién soy**
Julia Navarro, Plaza y Janes Editores
- 5. Hasta aquí hemos llegado**
Toni Strubell i Trueta, Tarttalo
- 6. La herbolera**
Toti Martínez de Lezea, Tarttalo
- 7. El fuego**
Catherine Neville, Plaza y Janes Editores